

# 40 urte eta elur-bola

1976ko azaroan, Durangoko Azokaren testuinguruan –garai hartan azaroaren lehenaren bueltan egiten baitzen–, lagun batek eta biok deliberratu genuen euskal gay elkarte bat beharrezkoa zela, eta beste inork egingo ez zuenez, guk geuk sortu beharko genukeela.

Berehalako kontua izan zen: urtaril-otsailerako martxan zegoen. Gauzak arin samar joan ziren, herriaren askatasun-oldeak bultzatuta. Amnistiaren aldeko manifestazio batean irten ginen lehen aldiz geure pankartarekin, eta besteren batean gero; baina 1977ko azaroan geuk deitu genuen lehen aldiz manifestatzera, hainbat talde sozialekin batera. Indarrean zegoen Arriskutasun-eta Birgizarteratze-Legearen aurkakoa izan zen agerraldia, lege hark zigortzen baitzuen homosexual izatearen susmo hutsa. Nahiko arrakastatsua izan zen, lau mila lagun batu ginen-eta. Poliziak sakabanatu egin zuen, eta gu jipoitu. Jarrai nezake kontu kontari, baina hau bezalako ehunka orrialde beharko nituzke.

Berrogeigarren urteurrena ospatzen dugu aurten. Zalantzati gabiltza ordea, zerbait ospatzeko moduan ote gauden. Hainbat kontutan, jakina, asko aurreratu dugu. Hasieran amesten genuena baino gehiago, agian; baina oraindik



Imanol Alvarez

IRAKASLEA

Hainbat kontutan asko aurreratu dugu. Hasieran amesten genuena baino gehiago, agian; baina oraindik lanean jarraitu beharrak, erasoek eta abarrek kezkatu gaituzte

lanean jarraitu beharrak, erasoek eta abarrek kezkatu gaituzte.

Zorionez, urte hauetan guztietan beste talde batzuk sortuz joan dira, eta egun sare ederra dago osatua. Dena dela, praxi txar batez konturatu naiz: militantzian hasten direnak gehienetan

nork bere elkartetxoa sortzen du, aurretik egina dagoena ezagutu eta aprobetxatu barik. Tamalgarria deritzot, besteak beste, denbora eta energia alferrik xahutzea dakarrelako. Aurreko artikuluan nioen gazteek uste izan ohi dutela mundua eurekin hasten dela. Eta hala da. Bizitzako edozein esparrutan bezala, gurean ere ia dena errepikatzen da ziklikoki. Hasiera-hasieran, adibidez, bipolaritateaz egiten genuen berba. Hau da, dena bitan banatzearen kontra geunden: maskulino-femenino, gizonezko-emakumezko, aktibo-pasibo... Gaurko gazteek ez dute *bipolar* hitza erabiltzen (ziur aski psikiatriak eritasun bati esateko darabilelako) *binarioa* baizik. Gizartea denen artean aldatu behar genuela-eta, beste herri mugimenduekiko elkarlanaz aritzen ginen gu; eurek orain intersektorialitatea gora eta behera darabilte. Txarrena da sinetsita daudela eurek asmatu dituztela kontzeptuok.

Nolanahi ere, hein batean poztu egiten naiz. Alde batetik zerbait bereganatzeko modurik hobereana norberaren hausnarketaren ondorio izatea delako; eta, beste aldetik, elur-bolarekin gertatu bezala, ematen duen buelta bakoitzean lodituz doalako kontzeptua, ñabardurekin osatuz. ■

**MARCOS**  
okindegia

**Benetako  
aitzinako ogia**

☎ 943 450 966  
Ubarburu pasealekua, 113  
Astigarraga (Gipuzkoa)

**LUA**arkitektoak

hirigintza  
aholkularitza  
udal planak  
urbanizazioak  
peritazioak  
balorazioak  
etxebizitza proiektuak  
birgaitzeak  
barne diseinua...

R. O. Arga Kalea 28, 31014 Iruña  
Tel 948 13 26 97  
lua@luark.com

**tradebi**

EB Traducciones Itzulpenak, S. L.

[tradebi@tradebi.com](mailto:tradebi@tradebi.com)